

BEIREKO PLAZAN

Behin bazen 2004.ko urtean Beireko plazan neska bat. Neskak Sandra izena zuen eta ederra eta bihotz onekoa zen;21 urte zituen.Bere herria oso-oso polita zen eta beti paseotso bat ematera joaten zen ikastolatik etortzean edo larunbat, igande goizetan.

Egun batean mutil guztiak bere atzetik etortzen zitzaizkion.Orduntxe amak esan zion:

-Joan zaitez amonaren etxera amona ikustera-

-Bai ama oraintxe noa!-esan zuen Sandrak.

Horrela zihoan Sandra bere amonaren etxera amona ikustera.Berehala tabernara sartu,

ur botila txiki bat eskatu eta edan egin zuen.Horrela jarraitu zuen bidea eta poza gehiago sentitzen zuen amonarengana urbiltzen zen einean.Orduntxe mutilak ikusi zituen eta galdetu zien:

-Zertan ari zarete?-esan zuen Sandrak.

-En,en,en ezertan.

Orduan mutilek plana egin zuten eta hauxe izan zen bururatukoa:(zulo sakon eta lodia egin,gero makil finak kontuz jarri,gero harri txintxarrak bota eta listo) orduan tranpa egin eta segituan harrapatu zuten Sandra eta gero borda zahar batean gorde zuten.

Sandra beldurtuta zegoen baina zirrikitu txiki bat ikusi zuen eta handik ihes egitea lortu zuen.Amonaren etxera iritsi zenean ,den dena kontatu zion eta amonak lasai egoteko esan zion gauza horiek mutil bihurrienak zirela eta hurrengo egunean beraiek egingo zutela plan bat susto txiki bat emateko beraiei.Agur esan amonari eta etxerako bidea hartu zuen,berriro ur botila bat edan eta etxera iritsi zen konturatu orduko.Honelako egun gogor baten ondoren gustora joan zen Sandra ohera ,batez ere zoriontsu, hurrengo eguneko plana zein izango zen pentsatuz.